

# ERANSKINA

## DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

### LEHENDAKARITZA 2017

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikulua ezarritakoaren arabera, *Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakundek, alde aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta.*

*Horrez gain, zehazten du lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzera bideratu behar dela, eta bere ondorioek ahalik eta distortsio txikiena eragin behar dutela.*

*Lege horrek aipatzen duen diru-laguntzen kudeaketa egiteko hurrengo printzipioak jarraituko dira:*

- a) Publizitatea, gardentasuna, aldiberekotasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta ez-baztertzea.*
- b) Eman duen administrazioak finkatutako helburuak lortzean izandako efikazia.*
- c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.*

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen alorrean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrak, Diru-laguntzen Plan Estrategikoak egiteari buruzkoak, hainbat argibide eman ditu horiek ezinbestean egiteari begira.

Lehendakaritzak gauzatu beharreko jardura esparruak esleitu ditu Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak.

Lehendakaritzaren egitura organikoa aldatzen ez den bitartean, indarrean dirau apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren bitartez onartutakoak. Horri jarraikiz, Lehendakaritzaren egitura organiko eta funtzionala hiru idazkaritzatan ezarri zen: Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusian. Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari dagokio Lehendakaritzako zerbitzu komunaren koordinazio orokorra, zuzendaritza eta kudeaketa.

Bestalde, genero-arloko aukera-berdintasunaren jardura esparrua Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoaren esku dago; garapenerako lankidetzaren esparrua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide publikoko erakundeari dagokio; eta giza eskubideak bermatzeko, sustatzeko eta garatzeko, memoria sustatzeko eta bizikidetzaren demokratikoan aurrerapenak eta

garapena lortzeko esparrua Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua erakunde autonomoaren ardurapean dago.

Aipatutako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrari jarraikiz, Lehendakaritzaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu beharra dago, bai eta hari atxikitako organismo bakoitzaren diru-laguntzen plan estrategikoak ere.

Hori dela eta, jarraian **Lehendakaritzaren 2017ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoa** landuko da, eta lehenik eta behin adierazi behar da plana programatikoa dela, -horrelako beste planak bezala- eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna abiarazten diren diru-laguntza ildoen baldintzapekoa izango da eta hori, beste alderdi batzuen artean, urte bakoitzean dagoen aurrekontuaren arabera izango da

Kontuan hartu behar da Lehendakaritzari esleitutako jarduera esparruetan, alde batetik, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia onartu zela Gobernu Kontseiluak 2014ko apirilaren 8an hartutako erabakiaren bitartez, eta bestetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-ZTBP 2020 onartu zela Gobernu Kontseiluak 2014ko abenduaren 16n hartutako erabakiaren bitartez.

Une honetan plan hauen eguneratzeak ari dira prestatzen:

- Kanpo Harremanetarako Plana 2017-2020, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategiaren zati gisa, Kanpo Harremanetarako Plana 2017-2020 eguneratuko duena.
- Bake eta Bizikidetzaren Plana 2017-2020, Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 eguneratuko duena.

Bi planok zehaztuko dute legegintzaldi honetarako jarduera esparru bakoitzari dagokion plangintza.

Bestalde, aipatu behar da ZTBP 2020-Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekiko erreferentziak garrantzia oso mugatua duela Lehendakaritzaren jardueran, eta neutroa Diru-laguntzen Plan Estrategiko honi dagokionez. Hain zuzen, ZTBP horri lotuta, Lehendakaritzako Aurrekontuan jaso da Berrikuntza Funtzari dagokion aurreikuspena, eta hura, berezko programarekin, Jaurkitzearen beste sailen bitartez arautzen da diru-laguntzen deialdiei dagokienez, gehienbat Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren bitartez, eta horiei kopuru egokiak transferitzen zaizkie antolatzen dituzten deialdiak kudeatzeko.

Abenduaren 23ko 9/2015 Legean jasotakoaren arabera –lege horren bitartez onartu ziren EAEn Aurrekontu Orokorak 2016rako eta indarraldia luzatuta dauka gaur egun lege horrek–, badira, diru-laguntza izendunekin batera, bestelako diru-baliabideak ere diru-laguntzen bitartez ekiteko hainbat ekimeni; diru-laguntza izendunak ez dira plangintza honen xedea Legebiltzarrak helburu zehatz baterako onartu dituelako. Luzatutako diru-baliabide horiekin, eta 2017rako Aurrekontuen Lege berria eta legegintzaldi honetarako plan estrategikoak onartu arte, diru-laguntzen plan berri bat egin beharko da 2017rako, diru-laguntzen ildoak abiarazteko aukera izan dadin.

Gauzatu nahi diren interes publikoak aztertu ondoren, eta baterako ikuspegia eskaintzeko, eraginkortasun-mailak areagotzea eragiteko eta publikitatea eta gardentasuna errazteko, erabaki da **Lehendakaritzaren 2017ko Diru Laguntzen Plan Estrategiko honek** jaso ditzala Aurrekontuen Legean 2016rako egindako aurreikuspenak –2017rako luzatuta baitago lege hori–, eta 2017ko Aurrekontuen

Lege-proiektuan aurreikusitako eguneratzea. 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak lege-proiektu hori.

Beraz, aipatu beharra dago 2017rako aurreikusitako laguntzek eta diru-laguntzek ondoko ezaugarriak dituztela, 2016rako Aurrekontuen Legearen luzapenez luzatutakoak eta 2017rako Aurrekontuen Lege-proiektuan aurreikusitakoak izateagatik:

- Sailaren idazkaritza nagusi guztietan daude laguntzen eta diru-laguntzen aurreikuspenak.
- Norgehiagoka-prozedura bidez esleitu beharreko hornidura moduan agertzen dira sariak eta beka ere.

Horregatik guztiagatik, Lehendakartzari dagozkion diru-laguntzen bidez sutatu beharreko jardueraren plangintza-tresna izan dadin eratu da **Lehendakaritzaren 2017ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoa**, ondoko ataletan egituratuta:

1. Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntzak (arloan lotu gabeak).
2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntzak. Nazioartekotze Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategiaren esparruan eta Kanpo Harremanetarako Plana erreferentziatzen hartuta, plan berria onartu arte.
3. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntzak. Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 erreferentziatzen hartuta, plan berria onartu arte.

Dena den, aurrekontu-baliabideak izan beharko dira diru-laguntzak emateko.

Beraz, aldi baterako onartu da plan hau, eta eguneratu egin beharko da Kanpo Harremanetarako Plana 2017-2020 eta Bake eta Bizikidetzaren Plana 2017-2020 onartu ondoren.

Bi horiek onartu ondoren, bestalde, XI legegintzaldiko planifikazioa egiteko modua izango da.

## LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

### 1. LEHENDAKARITZAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZAK (arloan-planei lotu gabeak)

DIRU-LAGUNTZEN ILDOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	PROGRAMA/AURREKONTU-PROIEKTUA/FINANTZAZIOA	ADIERAZLEA
Euskal Gizartearen Egoera saria 2016	Euskal gizartearen gaur egungo egoera hobeto ulertzen lagunduko duten ikerketak eta azterlanak bultzatzea eta sustatzea (137/1996 D)	PROGRAMA:  2017ko AURREKONTUA: 9.300 € (01 1121 11 45301 001) FINANTZAZIOA: Eusko Jaurlaritza, % 100	
Kazetaritza Digitalaren eta Gobernu Irekiaren inguruko prestakuntza emateko 2016-2017ko Beka Programa	Herritarren partaidetza, gardentasuna eta herritarrekiko sareko lankidetzak bultzatzea, interneten komunikatzeko multimedia eta ikus-entzunezko tresna berriak sustatuz	PROGRAMA: INTERNETI ETA SARE SOZIALEI BURUZKO ANALISIA: Gobernu Irekiaren eta Kazetaritza Digitalaren inguruko prestakuntza  2017ko AURREKONTUA: 15.000, 2018ko konpromiso-kreditua, 20.000 (01 1121 15 45301 001) FINANTZAZIOA: Eusko Jaurlaritza, % 100	2017ko aurrekontuaren tamaina: 4 beka

## KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

**2.- KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZAK (\*2014-2016 KANPO HARREMANETARAKO PLANAREkin lotuta; Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN integratua )**

### 1.- BEKAK:

#### KANPO HARREMANEN ALORREAN PROFESIONALAK ESPEZIALIZATZEKO BEKAK

AURREKONTUA: 01 1311 21 45301 002; **2017: 83.500**

#### KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ALORREAN ESPEZIALIZATZEKO BEKAK

AURREKONTUA: 01 1311 23 45301 003; 2017: 40.000, Konpromiso-kreditua: 2018: 40.000.

**Helburua:** 05. KANPO HARREMANEN ERAGINKORTASUNA ETA KALITATEA

**Ekintza:** 3. Euskadiko kanpo harremana profesionalizatzea. 4. Beka deialdia

**Adierazlea:**

– Gehitutako bekadunen kopurua: 8 ( aurrekontu ekitaldia)

#### \* 2014-2016 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

#### HELBURU ESTRATEGIKOA 06: Euskadiren kanpo harremanaren eraginkortasuna eta kalitatea gehitzea

**EKINTZA ILDOA: 6.3** El. Euskadiren kanpo harremana profesionalizatzea: 6.3 Elren ARDURADUNA: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

**Jarduera:** 6.3.4 J. Kanpo harremanei buruzko beken deialdia

**PLAN adierazlea:** 6.3.4. J. Kanpo harremanei buruzko beken deialdia

– Gehitutako bekadunen kopurua: 8

### 2.- PREMIA LARRIA DUEN KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEAREN DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 01 1311 23 45301 002; **2017: 202.000.**

**Helburua:** 04. EUSKADIRENI ETA KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ARTEKO HARREMANAK SUSTATU, BABESTU ETA AREAGOTZEA

**Ekintza:** 4. Kanpoan den euskal komunitateko kideak artatzea. 1. Premia larrian dauden familiei laguntzea

**Adierazlea:**

– Laguntza jaso duten familia kopurua: 80

#### \*2014-2016 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

#### 04 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea

**EKINTZA ILDOA: 4.4** El. Kanpoan den euskal komunitateko kideak artatzea. 4.4 Elren ARDURADUNA: Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

**Jarduera:** 4.4.1. J Premia larrian dauden familiei laguntzea

**PLAN adierazlea:**

4.4.1. J. Premia larrian dauden familiei laguntzea:

– Laguntza jaso duten familia kopurua: **80 2017rako eta 80 2018rako** (2017-2018 PLANIFIKATUTAKO ALDIA)

<b>3.- EUSKAL ETXEENTZAKO ETA EUSKAL ETXEON FEDERAZIOENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK (Jarduera gastuak, 4. kapitulua)</b>
AURREKONTUA: 01 1311 23 45499 003; <b>2017: 117.346,05. Konpromiso-kreditua: 2018: 664.961,95.</b>
<b>Helburua:</b> 04. EUSKADIREN ETA KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ARTEKO HARREMANAK SUSTATU, BABESTU ETA AREAGOTZEA <b>Ekintza:</b> 3. Kanpoko euskal komunitatea sendotzen laguntzea euskal etxeen sarearen bitartez <b>Adierazleak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Euskadiren egoera ezagutarazteko tresna gisa euskal etxeek duten zeregina indartzea. Euskal etxeek antolatutako jarduera kopurua: 3.500 (aurrekontu ekitaldia)</li> <li>– Euskal etxeen eta horien herrialdeetara bizitzera joandako bestelako diasporen arteko lankidetzaren sustatzea. Elkarrekin egindako jarduera kopurua: 70 (aurrekontu ekitaldia)</li> <li>– Euskal etxeak dituzten gizarteetan euskal etxeon jarduerak indartzea. Bestelako eragileekin egindako jarduera kopurua: 300 (aurrekontu ekitaldia)</li> </ul>
<b>*2014-2016 KANPO HARREMANETARAKO PLANA</b>
<b>04 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea</b>
<b>EKINTZA-ILDOA: 4.3. El. Kanpoko euskal komunitatea sendotzen laguntzea euskal etxeen sarearen bitartez . 4.3. Elren ARDURADUNA:</b> Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza <b>Jarduera:</b> 4.3.3. J. Euskal etxeak dituzten gizarteetan euskal etxeon jarduerak indartzea <b>PLAN adierazlea:</b> 4.3.1. J. Euskadiren egoera ezagutarazteko tresna gisa euskal etxeek duten zeregina indartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Euskal etxeek antolatutako jarduera kopurua: <b>750 2017rako eta 750 2018rako</b>(2017-2018 PLANIFIKATUTAKO ALDIA)</li> </ul> 4.3.3. J. Euskal etxeak dituzten gizarteetan euskal etxeon jarduerak indartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Bestelako eragileekin egindako jarduera kopurua: <b>120 2017rako eta 120 2018rako</b> (2017-2018 PLANIFIKATUTAKO ALDIA)</li> </ul>

<b>4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK (Inbertsioetarako gastua. 7. kapitulua)</b>
AURREKONTUA: 01 1311 23 75491 002; <b>2017: 18.000. Konpromiso-kreditua. 2018: 102.000</b>
<b>Helburua:</b> 04. EUSKADIREN ETA KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ARTEKO HARREMANAK SUSTATU, BABESTU ETA AREAGOTZEA <b>Ekintza:</b> 3. Kanpoko euskal komunitatea sendotzen laguntzea euskal etxeen sarearen bitartez. 4. Euskal etxeak informazioaren eta komunikazioen teknologietan txertatzea sustatzea <b>Adierazlea:</b> 100 Erabilitako komunikazio-bideen kopurua
<b>*2014-2016 KANPO HARREMANETARAKO PLANA</b>
<b>04 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea</b>
<b>EKINTZA-ILDOA: 4.3. El. Kanpoko euskal komunitatea sendotzen laguntzea euskal etxeen sarearen bitartez . 4.3. Elren ARDURADUNA:</b> Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza <b>Jarduera:</b> 4.3.4. J. Euskal etxeak informazioaren eta komunikazioen teknologietan txertatzea sustatzea <b>PLAN adierazlea:</b> 4.3.4. J. Euskal etxeak informazio eta komunikazioen teknologietan txertatzea sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Erabilitako komunikazio-bideen kopurua: 3 2017rako eta 3 2018rako (2017-2018 PLANIFIKATUTAKO ALDIA)</li> </ul> 4.3.1. J. Euskadiren egoera ezagutarazteko tresna gisa euskal etxeek duten zeregina indartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Euskal etxeek antolatutako jarduera kopurua: 750 2017rako eta 750 2018rako (2017-2018 PLANIFIKATUTAKO ALDIA)</li> </ul>

*\* Kanpo Harremanetarako Plan berria onartu arte –2017ko bukaerarako dago aurreikusita hori–, 2014-2016 Kanpo Harremanetarako Plana da erreferentzia esparrua.*

## BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

### 3.- BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZAK (2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planari lotuta)

PLAN BAKOITZARI LOTUTA IDENTIFIKATUTAKO DEIALDI BIDEZKO DIRU-LAGUNTZA ILDOAK: 2016

1.- BAKEARI, BIZIKIDETZARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROIEKTUAK (UDALEI ETA TOKIKO ERAKUNDEEI zuzendutako diru-laguntzak)		
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 42201 001; <b>2017: 150.000, Konpromiso-kreditua: 2018: 150.000.</b>		
ETORKIZUNA: Gizarte-hezkuntzako adiskidetzeta eta konpromisoa <b>Helburua:</b> 3. Lankidetzaren udalekin eta aldundiekin. <b>Ekintza:</b> Udaltzako diru-laguntza programa. <b>Adierazlea:</b> - Espediente kopurua: 55 - Parte hartu duten erakunde kopurua: 35		
* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin	Lurraldeka: - Inbertitutako aurrekontua. - Garatutako ekintza kopurua. - Parte hartzaileen kopurua.	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

2.- GIZA ESKUBIDEEN URRATZEEN BIKTIMEI ORDAINAK EMATEKO ARAUEN KUDEAKETA		
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 45302 003; <b>2017: 1.548.000</b>		
IRAGANA: BIKTIMEI BEGIRUNEA ETA ELKARTASUNA ERAKUSTEA <b>Helburua:</b> 3. GIZA ESKUBIDEEN BORTXAKETEN BIKTIMEI ELKARTASUNA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEA, EGUNGO LEGEEK BABESTEN EZ BADITUZTE <b>Ekintza:</b> Aitorpena eta ordaina emateko programa. <b>Adierazlea:</b> Bideratutako espedienteen kopurua: 50		
* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitorpena eta ordainak ematea	· Laguntza ekintzak · Errekonozimendu ekitaldiak · Gizarte erakundeekiko lankidetzeta · Ikerketak eta azterlanak	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina
5. ekimena. Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntzea eta aitorpena eta ordainak ematea	· Aztertutako espedienteak · Emandako kalte-ordainak	Eragina

3.- BAKEARI, BIZIKIDETZARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROIEKTUAK (ERAKUNDEEI ETA GIZARTE MUGIMENDUEI zuzendutako diru-laguntzak)		
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 002; <b>2017: 450.000. Konpromiso-kreditua: 2018: 150.000.</b>		
ETORKIZUNA: Gizarte-hezkuntzako adiskidetzeta eta konpromisoa <b>Helburua:</b> 1. LANKIDETZA ELKARTE-SAREAREKIN <b>Ekintza:</b> ELKARTEENTZAKO diru-laguntza programa <b>Adierazleak:</b> - Espediente kopurua: 140 - Parte hartzen duten erakundeen kopurua: 70		
* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
13. ekimena. Lankidetzeta <i>publiko-soziala</i> euskal elkarten sarearekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarre parte-hartzaileen kopurua.</li> <li>- Erakunde parte-hartzaileen kopurua.</li> </ul>	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

4.- «Rene Cassin» GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO SARIA		
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 009; <b>2017: 12.000</b>		
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZETA ETA KONPROMISOA <b>Helburua:</b> 5. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA <b>Ekintza:</b> Gizarte bakeari, giza eskubideei eta bizikidetzari buruz sentsibilizatzeko kanpainak edo ekintzak diseinatzea eta gauzatzea. <b>Adierazlea:</b> René Cassin saria: 1		
* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
17. ekimena. Ekintza-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez formalaren arloetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inbertitutako aurrekontua.</li> <li>- Garatutako ekintzen kopurua.</li> <li>- Parte-hartzaileen kopurua.</li> </ul>	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina
18. ekimena. Gizarte sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EiTBrekin hitzartutako jarduketaren kopurua</li> <li>- Garatutako komunikazio-ekimenen kopurua</li> </ul>	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina



5.- ITZULI BEHARRIK GABEKO DIRU-LAGUNTZAK TERRORISMOAREN BIKTIMENTZAT		
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 45302 001; <b>2017: 140.000 (4. EKIMEN-PLANA).</b>		
<b>IRAGANA:</b> Biktimei zuzendutako azalpena eta elkartasuna <b>Helburua:</b> 2. TERRORISMOAREN BIKTIMEI ELKARTASUNA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEA. <b>Ekintza:</b> Indarrean den araudian (4/2008 Legea eta azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuko garapen-erregelamendua) adierazitako edozer diru-laguntza motarako espedienteak izapidetzea. <b>Adierazlea:</b> Espedienteen kopurua: 50		
* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitortpena eta ordainak ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Laguntza-ekintzak</li> <li>· Errekonozimendu-ekitaldiak</li> <li>· Gizarte-entitateekiko lankidetzak</li> <li>· Ikerketak eta azterlanak</li> </ul>	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

6.- TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK		
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 010; <b>2017: 130.000. Konpromiso-kreditua: 2018: 130.000 (4.2. EKIMEN-PLANA).</b>		
<b>IRAGANA:</b> Biktimei zuzendutako azalpena eta elkartasuna <b>Helburua:</b> 2. TERRORISMOAREN BIKTIMEI ELKARTASUNA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEA <b>Ekintza:</b> Elkarreentzako diru-laguntza programa. <b>Adierazlea:</b> Espediente kopurua: 50		
* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitortpena eta ordainak ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Laguntza-ekintzak</li> <li>· Errekonozimendu-ekitaldiak</li> <li>· Gizarte-entitateekiko lankidetzak</li> <li>· Ikerketak eta azterlanak</li> </ul>	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

7.- ELKARREKIN BONUEN PROGRAMA
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ HERRITARREN PARTAIDETZA alorra (13. EKIMEN-PLANA)</li> <li>○ UDAL alorra (15. EKIMEN-PLANA)</li> <li>○ HZKUNTZA alorra (16. EKIMEN-PLANA)</li> </ul>
AURREKONTU PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 013; <b>2017: 500.000</b>

* BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
<b>HERRITARREN PARTAIDETZAREN ALORRA</b> <b>13. ekimena.</b> Lankidetzaren publiko-soziala euskal elkarten sarearekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakunde parte-hartzaileen kopurua.</li> <li>- Elkarte parte-hartzaileen kopurua.</li> </ul>	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA <b>Helburua:</b> 2. HERRITARREN PARTAIDETZA <b>Ekintza:</b> Herritarrek parte hartzeko ekimenak definitzea eta bultzatzea Elkarrekin bonu-programaren bidez. <b>Adierazleak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Diruz lagundu diren ekimenen kopurua: 25.</li> <li>- Parte hartzen duten gizarte-erakundeen kopurua: 8.</li> </ul>		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	
<b>UDALEN ALORRA</b> <b>15. ekimena.</b> Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurraldeka:</li> <li>-Inbertitutako aurrekontua.</li> <li>-Garatutako ekintzen kopurua.</li> <li>-Parte-hartzaileen kopurua.</li> </ul>	
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA <b>Helburua:</b> 3. LANKIDETZA UDALEKIN ETA ALDUNDIEKIN <b>Ekintza:</b> Elkarrekin bonu-programaren garapena udalekin eta aldundiekin. <b>Adierazleak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Diruz lagundu diren ekimenen kopurua: 25</li> <li>- Parte hartzen duten gizarte-erakundeen kopurua: 8</li> </ul>		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	
<b>HEZKUNTZAREN ALORRA</b> <b>16. ekimena.</b> Ekintza-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalararen arloan	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Inbertitutako aurrekontua.</li> <li>-Garatutako zentro eta ekintzen kopurua.</li> <li>-Parte-hartzaileen kopurua.</li> </ul>	
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA <b>Helburua:</b> 4. HEZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAK <b>Ekintza:</b> Elkarrekin bonu-programaren garapena hezkuntza formalean. <b>Adierazleak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Diruz lagundu diren ekimenen kopurua: 150</li> <li>- Parte hartzen duten erakundeen kopurua: 18</li> </ul>		

\* Bake eta Bizikidetzaren Plan berria onartu arte –2017ko bukaerarako dago aurreikusita hori–, 2013-2016 Bake eta Bizikidetzaren Plana da erreferentzia esparrua.